

Emakumezkoen literatura. Ipuin liburu bi

Nerea Loiolak eta Itziar Otegik iaz argitaratutako lanak proposatzen dizkizuegu gaur, lan biak bikainak baitira literaturaren ikuspegitik

JON KORTAZAR

Martxorako iaz argitaraturiko ipuin liburu bi irakurtzea proposatuko dugu. Lehena Nerea Loiolak idatzi du, bestea Itziar Otegik plazaratu. Bi dira liburuak, bi ahots literarioak.

Begiratzen baditugu eranskin literarioak edo entzun han eta hor, bazterretan entzuten diren esamesak, ziurrenik ez dira agertuko idazle bion izenak. Egunkari orriek eta literatura aldizkariak bertsolaritzatik kontakizunera igaro diren idazleen izenak aipatu dituzte, bai nerabazaroroko hizkuntza osatuko dutelako, bai literatur lana ‘à cléf nobela’ gisa osatu dutelako, hau da testuan benetako pertsonaiak ezagutzeko modua eskaini dutelako.

Bazterrean geratu dira,

agian, baina komentatu nahi ditugun lan biak bikainak dira literaturaren ikuspegitik.

Arriskuaren bila

Nerea Loiolak (1985) ezagutzera eman duen bigarren liburua da ‘Zebrak eta bideak’, pixkanaka traiektoria bat indartzen duela adierazten duen seinalea. Ipuinaren generoa maite du, eta niretzat daukat borondate irmo bategidatu duela bere ahalegina. Oraingoan ere ezaugarri nagusi bi ageri dira bere kontakizunaren ortzimugan. Esperimentazioa lehenik, egunerokoan sortzen den arrakala ondoren.

Desberdinak dira liburuan ageri diren sei ipuinak, eta bakoitza arau desberdin bati jarraituz osatu duela esan dezakegu. Bakarritzeta mingotsak

sortu du lehen ipuina. Iraganaren itzulera garratzak eman dio tonua bigarrenari, aspaldian senar eta emazte izandako pertsonaien arteko elkarrizketa ustelari. Errealitatearen eta ametsaren arteko tolesdurak osatu du nahiaren eta gertatuko ez denaren arteko joko ironikoan moldatu den ‘Birentzako ohea’ deituriko ipuin sotilari. Ipuin bakoitzak bere tonua du, bere hizkera berezia, bere erritmoa eta bere tekniko sotila. Ugaritasun horretan egilearen esperimantazio borondatea ageri da.

Gai aldetik, ordea, egunerokotasunaren barnean pertsonaien artean sortzen diren arrakalak dute lehentasuna. Ama eta alaba, senar-emazte ohiak, egunerokotasunetik ihes egitea

amestu duen emakumea... Ipuin guztiek dute arnas luzeko istorioak kontatzeko gogoia. Eta horrelakoak dira Nerea Loiolaren ipuinak, neurritz luzeak, psikologiak eta pertsonaien eraketa zainduak kiribiltzen dute narrazioaren mataza.

Aldaketa zainduak

‘Ezer ez dago utzi nuen lekuan’ liburuarekin irabazi zuen Itziar Otegik (1972) 2024ko Donostia Hiriko Kutxa Literatura Saria. Bere lehen lana da, itzultzaile gisa aritu ondoren lehen sorkuntza lana, eta aitortu behar dugu ipuin liburu borobila eman duela ezagutzera. Aldaketak dira, izenburuak esan bezala, ipuinon erdigunearen izaera. Ezer ez dago jada bere lekuan, protagonistek, objektuek baino gehiago, aldatu dute beren

izaera ipuinaren hasieratik bukarara.

«Beste bat bihurtzen ari naiz» esaldia aukeratu du egi-leak liburua zabaltzen duen aipuan, kontakizunen esanahi orokorra adierazi gurean. Eta bai, beste norbait bihurtzeko bide hori da liburuko adierazpen nagusia. Hasi gaitezen liburua hasten den kontakizunetik. ‘Niri ez zait gertatuko’ deitu du Otegik, eta bertan irmo ageri da neskata protagonistaren erabakia, berari ez zaio gertatuko, berak «aurkituko du» bera benetan izateko bidea. Norbera nor den jakiteko eta bizitzeko bidean ari dira protagonistak.

Bilduma horretan gehien txunditu ninduen ipuina ‘Ez nazazu konta inori’ deitutakoa da, obsesio bat medio, bere izaera guztiz aldatzen duen pertsona baten historia. Gainera, kontakizunaren beste alde erakutsi zaigu hurrengo ipuinean, errealitate bat mugatzeko ikuspegi bi beharrezkoak balira bezala.

Gaiaren batasunak eman dio borobiltasuna liburuari, bizi-tzak ekarritako aldaketan bizi diren pertsonaien ugaritasuna marrazten duelarik.

Barrenak mugitzen dituen familia testigantza

AIORA SAMPEDRO

Itxaso Martín Zapirainen bigarren go-belan aurretik erakutsitako narratibarako gaitasuna mantentzen du egileak. Idazle honek ahalmen berezia dauka pertsonaien psikean barneratzeko, haien pentsamendu-jarioa erakusteko eta gainera, hori guztia prosa soil baina zorrotz bat erabiliz egiten du. Horren erakusgarri da nobela honetan bi planoen arteko bereizketa: batean ama-alaba batzuen iragan-kontakizuna egiten du narratibatik kanpoko narratzaile orojakile batek eta bestean, beste bi ama-alabaren elkarrizketaren transkripzio zuzena ageri da. Zentzu horretan, bere ‘Ni, Vera’ lehen eleberrian ondutako moldeari jarraitzen dio honek ere. Hemen kon-

tua da, pertsonaia guztiak familia bereko belaunaldi desberdinetako emakumeak direla, horrek dakarren karga sinboliko guztiarekin.

Eta gaiari dagokionez ere, kontakizun honek badu aurrekoarekiko loturarik. Neurodibergentziara eraman du orain ere arreta egileak, pertsonaia autista baten azalean jarritik. Eta horregatik ere, bere doktore-tesiarekin du harremana, gizartearen isiltasuna ere zigortzen delako neuro-arauetik desberdintzen den hari egiten zaion bazterketa mahaigaineratzean. Hori da irakurlea gehien mugitzen duen atala. Liburuaren irakurlea lekuko gisa ageri da familia bateko kideen inguruan ezartzen den estigma-ra, halako moldez non estigma horrek pertsonaia horiek beraiek sozialki isolatzea lortzen duen. Zehazki idazmenari dagokionez, Martínek oso ondo mantentzen du tramaren aurre-rapenaren eta pertsonaien psikearen miaketaren eta prozesu horretan guztian bizi dituzten emozioen arteko oreka. Kontakizunak ez du eritmorik galtzen baina pertsonaiekin enpatia lortzea ahalbidetzen da.

Iragan garaian girotutako kontakizuna izanagatik, oso eguneratua den kritika gailentzen da azkenean.

PUNTOBOBO

Itxaso Martín Zapirain

Editoriala: Erein

184 or

19,50 euro

Katixa Agirreren ‘Eneagrama’ (bideo)podcasta sarean da jada

JAN ECHEVARRIA

Katixa Agirre idazleak gidatzen duen ‘Eneagrama’ (bideo)podcastaren lehen atala ikusgai eta entzungai dugu jada EITBren GUAU Gure Audio streaming plataforman. Aste honetan igota, gonbidatua Eneko Sagardoy izan da, «hamaika maskara jantzi dituen aktorea», eta bertan, besteak beste, Goya saria irabaztearen pribilegioaz, haurtzaroan Durangoko ikastolan parte hartu zuen antzerki proiektuaz, etxean bereziki antzerkizaleak ez zirelax eta beste zenbait gaien inguruan aritu dira.

Hemendik aurrera, Eider Rodriguez idazlea; Maite Larburu abeslari, musikari eta konpositorea; Julen Telleria irratiesataria; Aner Peritz bertsolaria; Aketza Lopez aktorea; Miren Agur Meabe idazlea; Lide Hernando abeslari eta idazlea; Galder Perez antzerki sortzaile eta kazetaria; eta Ainara Azpiazu Axi ilustratzailea izango dira Agirrerekin. Izan ere, guztira 10 atal izango dira eta bakoitzak 30 minutu iraungo ditu.



Katixa Agirre

Saioak dinamika erraza du: elkarrizketaren lehen zatian, Agirrek gonbidatuei euren alde profesionalaren eta pertsonalaren gaineko galderak egingo dizkie eta, erantzunei eutsiz, bigarren partean eneagraman aditua den Jonkin Ameztok jakintsuak (Andoni Mutiloa aktoreak sortutako pertsonaia da) gonbidatuari bere eneati-poa zein den zehaztuko dio, momentuan egindako test txiki baten erantzunei erreparatuz.

Ondoren, elkarrizketatua eneati-poi horri egokitzen zaizkion portaera eredu-ekin identifikatuta sentitzen den ala ez jakingo dugu, eta zein ezaugarri gustatzen zaizkion eta zein ez.

Izan ere, eneati-poi eneagraman oinarritutako nortasun mota bat da, eta bederatzi jokabide-eredu, motibazio eta oinarritzko beldur deskribatzen ditu.

(Bideo)podcastaren arduradunen arabera, ‘Eneagrama’ «askotariko sortzaileen plaza da; baina ez da edozein plaza, ez delako ohiko elkarrizketa podcast bat». Diotenez, «bertara datozen gonbidatuak Katixa Agirrerekin batera jolas-teko prest etorriko dira».

SALDUENAK

FIKZIOA

- 1 Pleibak** Miren Amuriza. Susa.
- 2 Hetero** Uxue Alberdi. Susa.
- 3 Bisita** Mikel Pagadi. Elkar.
- 4 19 kamera** Jon Arretxe. Erein.

EZ FIKZIOA

- 1 Idazketa labana bat da** Annie Ernaux. Katakarak.
- 2 Pasionaria** Alberto Bargas. Beta III ediciones.
- 3 Txillardegi hizkuntzalari** Markos Zapiain. Elkar.
- 4 Berbelitzen hiztegia** Anjel Lertxundi. Alberdania.